



1

**ESKABIDEA:** Pertsonak posta ziurta- tuaren bidez eskatu behar du (gutun-aza- la irekita eraman behar da, Correoseko funtzionarioak eskabidean datadun zigilu bat jar diezagun). Eskaera egiteko epea hauteskunde-aurreabisua egin zen egu- netik bozketa-eguna baino 5 egun lehe- nago artekoa da.

2



**DOKUMENTAZIOA:**

Eskatzailea erroldan dagoela egiaztatu ondoren, mahaia- k posta ziurtatu bidez bidaliko dizkio botoa eman behar duen hautesle-tal- dearen hautagai-zerrenda guztien txartelak eta botoa emateko gutun-azala.

3

**BOZKETA:** Hautesleak botoa eman nahi dion sindikatuaren txar- tela sartu behar du bidalitako gu- tun-azalean, eta itxi egin behar du. Gutun-azal hori, era berean, beste gutun-azal handiago batean sar- tuko da, hauteslearen NANaren fotokopiarekin batera. Gutun-azal hori dagokion hauteskunde-ma- haira bidaliko du posta ziurtatu bidez.



4

**KUSTODIA:**

Hauteskunde-ma- haiak, gutun-aza- la jaso ondoren, idazkariaren zain- tzepean izango du bozketa-egunera arte, ireki gabe.



5

**EMATEA:** Bozketa-egu- nean eta behin bozketa amaituta, idazkariak le- hendakariari emango di- zkie jasotako gutun-azal guztiak.



6

**IREKIERA:** Mahaiburuak gutun-azal guztiak irekiko ditu, hauteslea identifika- tuz eta boto-txartela hau- testontzian sartuz.



7



**ZENBAKETA:** Bozketa zenbatuko da.

esk.eus



**ATZERAPENA:**

Botoa zenbaketaren on- doren iristen bada, ez da kontatuko, eta suntsitu egingo da, ireki gabe. Ma- haiak horren berri eman beharko du.



**AURREZ AURREKO BOZKA:**

Langileak, posta bidezko botoa eskatu ondoren, bozketa-egunean botoa pertsonalki eman nahi badu, horretarako eskubidea izango du. Horretarako, mahaia- ri egoera horren berri eman beharko dio eta honek posta bidezko botoarekin jasotako gutun-azala itzuli beharko dio.

